



EBAZPENA, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2023KO EKAINAREN 19KOA, 2023-24KO IKASTURTERAKO FISIOTERAPEUTA, TERAPEUTA OKUPAZIONAL, HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTA, TRANSKRIBATZAILE EDO MATERIALAREN EGOKITZAILE ETA ZEINU-HIZKUNTZAKO INTERPRETE KATEGORIETAKO LANGILE FINKO ETA LANPOSTU HUTSETAN ETA MUGAGABE EZ FINKOEN ARTEAN ESLEITU GABE GERATU DIREN LANPOSTUAK ESLEITZEKO DEIA EGITEN DUENA, BAITA IKASTETXEEN ESLEIPENA ETA GERO EZAGUTU DIREN BESTE ORDEZKAPENAK ETA IDENTIFIKATU DIREN LANPOSTUAK ZERBITZUA EMATEKO BEHARREZKOAK DIRENAK ERE.

Langile finkoen eta lanpostu huts eta lan-harreman mugagabea dutenen artean esleitu gabe geratu diren lanpostuen esleipena prozesu baten itxiera da. Izan ere, planifikatzeko eta pertsonala kudeatzeko egin diren hurrenez hurrengo jarduerak eratzten dute prozesu hori eta hasten den ikasturtearen matrikulara egokitutako hezkuntza-zerbitzua emateko behar diren hezkuntza bereziko lanpostuak zehaztea du helburu.

Esleitzeko prozesu hori ondorengo legeriak arautzen du: 2019ko ekainaren 4ko Agindua, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez lanpostuaren adjudikazioa arautzen baitzaie fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte direnei, eta zeinaren bidez ezartzen baita lan-kontratudun langile finkoei, mugagabe ez-finkoei eta bitartekoei zentroen urteko esleipena egiteko prozedura, fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietan.

Halaber, esleitzeko prozesuaren premisetako bat Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileentzako Hitzarmen Kolektiboaren III. Eranskina hartzen du, zeinetan hezitzaileen ordezkapenen araudia jasotzen den. Horren inguruan esan beharra dago ordezkogaien zerrendak kategorien arabera egiten direla.

Prozesua urtero deitzen da, Hezkuntza Sailaren web orrian argitara ematen den eta egutegia zehazten duen Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez.

Horregatik guztiarengatik,

EBAZTEN DUT:

Primero.- Prozesua deitzea.

2023-24ko ikasturterako Fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietako langile finko eta lanpostu hutsetan eta mugagabe ez finkoen artean esleitu gabe geratu diren lanpostuak esleitzeko deia egiten da, baita ikastetxeen esleipena eta gero ezagutu diren beste ordezkapenak eta identifikatu diren lanpostuak zerbitzua emateko beharrezkoak direnak ere.



Bigarrena.- Egutegia.

Ebazpen honen A eranskinean parte-hartzaileentzat adierazten den egutegiaren eta ordutegiaren arabera eramango da esleitzeko prozesua aurrera.

Hirugarrena.- Parte-hartzaileak. Derrigorrezko eta borondatezko parte hartzea.

1.- Fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzatzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte direnak derrigorrez parte hartuko dute, betiere prest badaude eta ondorengo bezalako edo hortik gorako puntuazioa badute:

- a) Hezkuntza Laguntzako espezialista: 3 puntu
- b) Zeinu-hizkuntzako interpretea: 0 puntu

Halaber, adierazitako puntuazioa edo handiagoa duten, lan-istripuagatik edo lanbide-gaixotasunagatik, edo haurra izen dutelako aldi baterako ezintasuneko egoeran; amatasun- edo aitatasun-egoeran; haurdunaldian arriskua edo arriskuko haurdunaldian; edo adopzioagatik edo harreragatik aldi baterako bajaran; edo jardunaldi-etete iragankorrean (seme-alabak zaintzeko edo sail honetako irakasle-lanpostuetara deitu dietelako) dauden ordezkogaiek, betiere egoera horiek behar bezala justifikatuz gero, hartu beharko dute derrigorrean parte.

2.- Aurreko puntuko puntuazioa baino gutxiago dutenek, ez dute derrigorrean parte hartu beharko baizik eta borondatez parte ahal izango dute.

3.- B eranskinaren bidez argitara ematen da hautagaien lan-egoeraren inguruko behin-behineko zerrenda 2023ko ekainaren 3ko datarekin.

Hezkuntza Sailak lan-egoerak ofizioz eguneratuko ditu (helburua, "prest" bezala agertzea da, esleipenean parte har dezaten) lan edo eginkizun zehatzeko kontratuak edo ekoizpen-gorabeherengatik kontratuak (2023/06/30ean edo 2023/08/31n amaitzen direnak), 2023/08/31 baino lehen amaituko direlaren ziurtapena daukaten ordezkapen-kontratuak etab.

Era berean, hautagaiek lan-egoera eta hizkuntza-eskakizuna aldatzea eskatu dezakete (2023-24 ikasturterako soilik) 2023-06-29ra arte ebazpen honen A eranskinarekin bat. Zeinu-hizkuntzako interpreteen kasuan 2022/08/23ra arte.

Halaber, apirilaren 24an ordezkapen-kontratu bat ez zuten eta ondorioz uko egiteko prozesuan uko egiterik izan ez zuten langileek, 2023-06-29a baino lehen (ZHlen kasuan 2023-06-22a baino lehen) ordezkapen-kontratu bat eskaini bazaie, egun horretara arte (2023-06-29ra arte -ZHI salbu- eta 2023-06-22ra arte ZHlen kasuan) uko egin ahal izango diote, ikasturte hasierako esleipen-prozesuan parte hartzeko helburuarekin. Horretarako, hezk.sind@euskadi.eus posta elektronikoa harremanetan jarri behar dira.

Laugarrena.- Eskainitako lanpostuak.



4.1. Lanpostuak eta ezaugarriak.

Eskainitako lanpostuen behin-behineko zerrenda eta horien ezaugarriak argitara ematen dira C eranskinaren bidez.

Zeinu-hizkuntzako interpreteen kasuan, lan-harreman mugagabekoek eta lanpostu hutsetan daudenek abuztuko ikasturte hasierako esleipena baino lehen lanpostua eskuratuko dute.

Eskainitako lanpostuen behin betiko zerrenda eta horien ezaugarriak argitara emango dira Hezkuntza Sailaren web orrialdean egutegiarekin bat.

Eskaerak egiteko 2023ko uztailaren 4ean argitara emango den lanpostuen behin betiko zerrenda begiratu behar da. Zeinu-hizkuntzako interpreteen kasuan 2023ko abuztuaren 25ean.

4.2. Lanpostuen kategoriak

Esleipen prozesura honetan kategoria hauetako lanpostuak eskainiko dira:

- a) Fisioterapeuta
- b) Terapeuta okupazionala
- c) Hezkuntza Laguntzako espezialista
- d) Transkribatzaile edo materialaren egokitzaila
- e) Zeinu-hizkuntzako interpretea

Bosgarrena.- Kontratu mota.

Eskainitako lanpostuak ondoren adierazten diren kontratuen bidez beteko dira: lanpostu hutsarengatik bitarteko kontratua, ekoizpen-gorabeherengatik kontratua, urte sabatikoarengatik ordezkapen-kontratua ikasturte osorako eta ordezkapen-kontratua liberazio sindikalagatik (aurreikusitako iraupena ikasturtekoa izango da, salbu eta aurretik lanpostuaren titularraren liberazioa amaitzen bada).

Kontratuaren modalitatea eskainitako lanpostuaren ezaugarrien artean adieraziko da eskainitako lanpostuen behin betiko zerrendan, 2023ko uztailaren 4an emango dena argitara Hezkuntza Sailaren web orrian. Zeinu-hizkuntzako interpreteen kasuan 2023ko abuztuaren 25ean.

Seigarrena.- Eskaerak

6.1 Eskabide elektronikoa.

1.– Eskabidea formalizatuko da prozedura abiarazteko ebazpenak adierazten duen epean, helbide honetan eskabide elektronikoa eginez: <https://hezigunea.euskadi.eus/eu/inicio>
Identifikatzeko, erabiltzailea eta pasahitza erabiliko dira, eta, hori ezean, NAN zenbakiaren bidez alta eman behako da. Sartzeko pasahitza gogoratzen ez bada, aipatu helbidean hori berreskuratze bidea aurki daiteke.



2.- Eskatzailearen identitatea egiaztatu egingo da, datuak egiaztatzeko zerbitzuaren bitartez. Zerbitzu hori Administrazio Elektronikoa buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian jasota dago.

3.- Aplikazioan lehen aldiz sartzean, eskabideari alta emango zaio, eta parte-hartzaile bakoitzak bere identitate-datuak eta prozesuan parte hartzeko datuak kontsultatu ahal izango ditu.

6.2. Lanpostuen eskaera egiteko modua.

1.- Pertsona bakoitzak eskabide bakarra formalizatuko du, nahiz eta lan-kategoria bat baino gehiagoko lanpostuak eskatu.

2.- Eskabideak datuak sartzeko 500 lerro ditu.

3.- Lerro bakoitzaren hasieran agertzen den eskabide-zenbakiak (esk. zk.) egindako eskaera ezberdinen arteko hautaketa-lehentasuna ezartzen du.

4.- Eskabidea egin daiteke:

-Lanpostu zehatzen gainean egin daiteke (eskaera zehatza). Kasu horretan, «Lanp. hur.- zk.» zutabeari dagokion laukitxoan, prozedura abiarazteko ebazpenean lanpostu zehatz horri esleitutako zenbakia adieraziko da.

-Era berean, eskabidea eskaera generikoen bidez ere egin daiteke. Eskaera generikoa da lanpostu zehatz bat adierazten ez duena, baizik eta ondorengo kontzeptu guztiak edo batzuk aukeratzen egiten dena: kategoria, lurralde historikoa, lanaldia, hizkuntza-eskakizuna edota destinoa.

5.- Eskabide berean, lanpostu zehatzen eta lanpostu generikoen eskaerak egin daitezke.

6.3. Eskabidea aldatzea eta ixtea.

1.- Eskabideari alta eman ondoren, irekita egongo da eta edozein unetan alda daiteke, aurkezteko epea zabalik den artean. Sartutako datuak zirriborro-formatuan inprima daitezke.

2.- Eskabidea automatikoki itxiko da epea amaitutakoan. Horrela, ordura arte grabatu dena hartuko da kontuan.

3.- Eskabidea itxi ondoren, ezingo da inolako aldaketarik egin, eta parte-hartzaile bakoitzak inprimaki bat lor dezake erregistratutako aukera eta eskaerekin.

6.4. Eskaerak balioestea.

1.- Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, sistemak sartutako datuak egiaztatuko ditu, eta, hala badagokio, ez ditu onartuko lanpostuak lortzeko baldintzaren bat betetzen ez duten parte-hartzaileen eskaerak.



2.– Era berean, ez dira onartuko elementu inkoherenteak dituzten eskaerak, ez eta deialdikoak ez diren lanpostuak edo parte-hartzaileak eskatu ezin dituen ikastetxeak edo lanpostuak begiesten dituzten eskaerak ere.

3.– Behin-behineko ebazpena argitaratzen den unetik aurrera, parte hartzeko benetako baldintzak jasotzen dituen inprimaki bat eskura daiteke, zer eskaera eta aukera onartu diren eta zein baztertu diren jasoko duena. Eskabidea ezingo da aldatu eskaerak baztertu izanaren ondorioz.

6.5. Derrigorrean parte hartu behar dutenen berezitasunak.

Derrigorrean parte hartu behar duten pertsonen eskaeretan, pertsona bakoitzarentzat zerrendan agertzen diren hizkuntza-eskakizunera, lanaldira eta lurralde historikora egokitutako lanpostu guztiek agertu beharko dute:

a) Pertsonak derrigorrean parte hartu behar badute eta ez badute eskaerarik aurkezten, sistema informatikoak derrigorrezko eskaera bat egingo du eta parte-hartzaileak sartzeko baldintza guztiak betetzen dituen lanpostu guztiak sartuko ditu eskaeran. Derrigorrezko eskaeran barneratutako lanpostuak 2019ko ekainaren 4ko 11. artikuluan zehaztutakoaren arabera ordenatuko dira.

b) Derrigorrean parte hartu behar duten pertsonak borondatezko eskaera bat, parte-hartzaileak sartzeko baldintzak betetzen dituen eskaerak agortu gabe betetzen badute, sistemak derrigorrean sortzen dituenak esleipenerako ordenatuko dira, borondatez egindako azken eskaeraren ondoren.

Hezkuntza Arreta Terapeutikorako zentroetako hezkuntza-laguntzako espezialisten eta arreta igerilekuan ematea eskatzen duen Gorbeialde Hezkuntza Zentro Bereziaren lanpostuei dagozkienak ez dituzte derrigorrezko eskaerak sortuko, ezta Hauspoa (Hedatzen) daramaten lanpostuak ere.

6.6. Borondatez parte hartu behar dutenen berezitasunak.

Borondatez parte hartzen duten pertsonak izango dute eskaera, parte hartzaileak sartzeko baldintzak betetzen dituen eskaera guztiak agortu gabe, egiteko aukera.

Edonola ere, esleitzeko prozeduran eskaera horiek bakarrik hartuko dira kontuan eta ez zaie derrigorrezko lanpostu bat inoiz ere esleituko.

6.7. Lanpostuen ordenazio automatikoa eskaera generiko eta derrigorrezkoetan.

Derrigorrezko eskaeran sartuta dauden eskaerak Aginduan jasotako ordenaren arabera ordenatuko dira:

a) Kategoriaren arabera, ordena honetan: fisioterapeuta, okupaziozko terapeuta, Hezkuntza Laguntzako espezialistak, transkribatzailea /materialaren egokitzailea eta Zeinu Mintzairaren interpretea.

b) Lurralde historikoen arabera, ordena honetan: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa.

c) Lanaldi osokoak; lanaldi partzialekoak.



d) Hizkuntz eskakizunaren arabera, ordena honetan: hizkuntz eskakizuna duten lanpostuak eta, geroago, hizkuntz eskakizunik gabekoak.

e) Destinoaren arabera, hezkuntza-pertsonalaren lanpostuak lanpostu-zerrendan agertzen diren destino-ordenaren arabera.

Zazpigarrena.- Lanpostuak esleitzeko irizpideak.

1.– Lanpostuen esleipena erreferentziako ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden hurrenkeraren arabera egingo da. Pertsona bakoitzari bere eskabidea osatzen dutenetatik lehenengo lanpostu libre eta balioduna esleituiko zaio. Eskabidean, kontuan hartuko dira bai eskaera zehatzak, bai eskaera generikoen eta nahitaezko eskaeren garapenaren ondoriozkoak.

2.– HLEA hizkuntza-eskakizuna dutenek HLEA hizkuntza-eskakizuna duten eta 1. hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data duten edo derrigortasun-datarik gabeko lanpostuetarako sarrera izango dute.

3.– 1. hizkuntza-eskakizuna soilik egiaztatu duten pertsonen 1. hizkuntza-eskakizuneko eta derrigortasun-data duten edo derrigortasun-datarik gabeko lanpostuak eskuratuko dituzte.

4.– Hizkuntza-eskakizun egiaztatuturik ez duten pertsonen 1. hizkuntza-eskakizuneko eta derrigortasun-datarik gabeko lanpostuak eskuratuko dituzte.

Zortzigarrena.- Distantzia ikastetxe eta helbidearen artean.

1.- Prozesu honetan lanaldi murriztuko lanpostu bati uko egiteko ezingo da erabili lanpostu horri dagokion ikastetxe publikoa helbidetik 50 kilometrotik gorako distantzian egotea.

2.- 2023ko ekainaren 20ko 09: 00etatik ekainaren 22ko 14: 00etara arte interesatuek aldatu ahal izango dituzte adierazi zituzten lurralde historikoaren, destinoaren (lanaldi partzialentzat bakarrik) eta lanaldi motaren aukerak. Ebazpen honen bidez araututako prozesuarentzat baino ez ditu eraginak izango.

3.- Berritzeguneko destinoa ez duten lanaldi partzialeko lanpostuen kasuan, ordezkogaiak aukeratu ahal izango dute lanaldi partzialeko lanpostua esleitzea interesatuta dauden zonaldeari dagokion Berritzegunea aukeratuz.

Bederatzigarrena.- Ondorioak eta kontratazioa.

1.– Adjudikatutako lanpostuak betetzeari ezin zaio uko egin, irakasleen ordezkogaien kasuan izan ezik, zerrenda kudeatzeko araudian jasota dagoen uko egiteko kasuren bat gertatzen bada, baldin eta kausa hori aurreikusi ezin diren egoeren ondoriozkoa bada, eskabideak aurkezteko epea hasi baino hiru egun lehenagotik lanpostuaz jabetu arte egin bada, eta alegatzen duenak borondatez egindako ekintza baten ondorio ez bada.

2.– Adjudikazioaren ondoren, lan-kontratua idatziz formalizatu beharko da.



Hamargarrena.- Sexu-izaerako delituen ziurtagiria.

Kontratua formalizatzen den datan, adin txikikoekin ohiko harremana izatea eskatzen duten lanbide eta jardueretan aritzeko Adin Txikikoaren Babeserako lege organikoak 13.5. artikuluan exijitzen duen baldintza betetzen dutela ziurtatu beharko dute ordezkogaiak, edo Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean kontsulta egiteko baimena eman beharko diote Administrazioari.

Hamaikagarrena.- Fisioterapeutak.

Kontratua formalizatzen den datan, langile fisioterapeutak kolegiatuta egon behar dira.

Hamabigarrena.- Egoera berezietan dauden ordezkogaiak.

1.- Izangaiek, lanpostua aukeratuko dute ikasturte-hasierako adjudikazio-prozeduran, egoera hauetako batean badaude, betiere behar bezala justifikatuz gero: lan-istripuagatik edo lanbide-gaixotasunagatik, edo haurra izen dutelako aldi baterako ezintasuneko egoeran; amatasun- edo aitatasun-egoeran; haurdunaldian arriskua edo arriskuko haurdunaldian; edo adopzioagatik edo harreragatik aldi baterako bajaran; edo jardunaldi-etete iragankorrean (seme-alabak zaintzeko edo sail honetako irakasle-lanpostuetara deitu dietelako); gainera, eskainiko zaien ordezkapenaren iraunaldia emandako zerbitzalditzat zenbatuko zaie, zerrendak birbarematzeari dagokionez bakarrik bada ere. Baremorako kontuan hartutako zerbitzaldi horrek ez du eraginik izango «antzinatasuna» izeneko ordainsari osagarrian, ez eta Gizarte Segurantzaren ondorioetarako ere, ez delako benetako zerbitzurik eman.

Aurreko egoera horietan dauden ordezkogaiak izango dute lanpostuan ikasturtean zehar hasteko aukera, egoera hori eragin duen gertaerak bukatu ondoren.

2.- Lanpostu bat esleitu zaion eta egoera horietakoren batean dagoen pertsonalak, egoera horrek ikasturte berrian jarraitzen badu, tokian-tokiko Lurralde Ordezkaritzari jakinarazi beharko dio.

3.- Aurreko paragrafoan azaldutako egoerek bukatu ondoren formalizatuko dira pertsonal horren kontratuak.

Hamairugarrena.- Bateriaezintasunarengatik eszedentzian daudenak.

Bateriaezintasunarengatik eszedentzian daudenak, Hezkuntza Saileko irakasle-lanpostu bat esleitzen bazaie, Sindikatuekiko Harremanetarako Zerbitzuari jakinarazi beharko dio ahalik eta lasterren, hezk.sind@euskadi.eus helbidera posta elektronikoko bidaliz eta 94.501.82.70, 94.501.84.29 edo 94.501.83.97 telefonoetara deituz.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko ekainaren 19an

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

BLANCA GUERRERO OCEJO